

## HAUR ETA GAZTE LITERATURA

## Bizitza bihurgune

## AZKEN BALADA

**Autorea:** Mariasun Landa.  
**Argitaletxea:** Erein, 2016.  
**Orrialde kopurua:** 70 orrialde.  
**Prezioa:** 9,50 euro.

Asun AGIRIANO

Ondo dio Jabier Kaltzakortak «ahozko munduan dena da perfektua; erregistro horrek urrea balio du; ez dauka ezer hutsik, perfektua bere xalotasun eta erraztasunean». Garai bateko munduan istorio eder eta bitxiak zeuden, beren apaltasunean kontakizun perfektuak. Egun, berriz, kontakizun eta kantakizun, bizpahiru balada abesteko gauza direnak gutxi dira. Agian horregatik, kutsu nostalgikoa hartzen diot Mariasun Landaren azken liburuari: antzinako koplak jaso eta gazteentzako narrazio bihurtuz aurkezten digun «Azken balada» izenekoari.

Liburuaren aurkezpenean egileak horrela zioen: «Ahozko literatura oso erraz galtzen da; hala ere, material bezala erabili eta beste literatura produktu batzuen bidez iritsi da guregana».

Nafarroa Behereko «Oreina bilakatu neska» euskal ahozko literaturan jaso zen

azken balada dugu, 1965ean Pierre Lafittek «Gure Herria» aldizkarian argitaratu eta Haizea musika taldeak 1977an Txomin Artola eta Amaia Zubiriaren ahotsetan ezaguna egin zuena, 'Ura ixuririk' izenburupean.

Kontakizunak elkarri loturiko hiru narrazio dakarzkigu, espazio eta denbora jakin batean kokatuak eta tipografia desberdinak dituztela.

Protagonistak Erramun, parke bateko udaltzaina, eta Maitane neska gaztea dira. Lehenengo atalean balada abestua bertsoetan emana zaigu, irakurleari jakin-mina pizteko amu gisa. Bigarrenean, jatorrizko bertsoa Erramunek prosaz azalduta eta, hirugarrenean, Maitane neskatilak asmatutakoa, bertso libre eta baikorrako batean.

Benetan istorio latza da ahozko literaturatik jasotakoa. Trobalari batek ideia emanda, sorginen erritu baten bitartez, orein bilakatzen den Mayi «neskatila berezi, ausart eta amestia» dugu. «Zaila izaten da gazte baten bihotza ezagutzeko», gehitzen du idazleak; izan ere, Mayiren desiorik handiena orein bilakatzea da. Baina erdia besterik ez du lortuko: egunez orein eta gaeuz neska izaten jarraituko du. Jakes nabek, ehiztari amorratua, tragedia ekarriko du familiara oreina



akabatzen duenean. Haragia eltzean egosten den bitartean orein-neskatoak hitz egin, amak alaba ezagutu eta bere buruaz beste egingo du: «puñala sartu du bere bihotzean», dio kantaren azken esaldiak. Une hori jaso du Elena Odriozolak liburuaren azala ilustratzeko, aitzoaren aho zorrotzak emakumearen gorputz gainean jartzen duen irudi indartsua aukeratu baitu.

Maitane neskatilak asmatuko duen narrazio berrian Leo Unai pertsonaia dugu, dorretxea eta animaliak zaintzeaz arduratzen den mutila.

Mayi eta Leo Unai nerabe maiteminduak dira orain, Jakes anaia ehizaren obsesioetatik urrundu nahi dute eta horretarako jolas bat asmatuko dute. Leok zahartzarotik gogoratzen du pasadizoa, agure-denboran, eta narrazio horretan nostalgia kutsua bai antzeman daiteke. «Bizitza bidea dela esan dute askok, eta bihurgune askotakoa dela gehituko nuke nik, dio hirugarren bertsoetako Leo pertsonaia».

Arauen haustura gogoko duen idazlea dugu Mariasun Landa; adibide bikaina liburu honen egitura experimentalari erreparatuz gero; izan ere, tradizioa errespetatuz modernitatearekin jolas egiten du.

Mitoetatik urrundu eta umoreari tarte txo bat ere eskaini dio. Horrela, Erramun eta Maitaneren ahotan, auto-fikzioa eginez, idazlearen izen propioa irakurtzen dugu.

Arriskua hartu eta erosotasun esparruetatik irteten dakien idazlea dugu Mariasun Landa. Kierkegaard-ek zioen: «Ausartzea, une batez, oreka galtzea da. Ez ausartzea norbera galtzea da».

## POESIA

## Barren-barrenekoak

## HODEIAK ZAPATETAN

**Autorea:** Mikel Etxaburu.  
**Argitaletxea:** Susa, 2014.  
**Orrialde kopurua:** 80 orrialde.  
**Prezioa:** 12,50 euro.

Iker ZALDUA

Mikel Etxabururen bigarren poesia-liburua da esku artean dudana «Hodeiak zapatetan». Lehen liburuan bezala («Zu zara orain txoria», Elkar, 2010), preso egon denaren barnean ernatzen diren, sortzen diren, bizi diren sentimenduek hartzen dute liburua ia osorik. Eta sentimenduak azpimarratuko nituzke, aldarrikapenak tiraderan gordeta utzi eta sentimenduez hitz egiten baitu, ukiezina denaz mintzo da, ametsez edo maitasunez.

«Ihes egiteko aukera txiki bat da / inork galdu nahi ez duen askatasuna». Liburuaren bi atal nagusietan errepikatzen den leloa da. Askatasun pertsonalaz ari da, ondoezari ihes egin nahian, zaurietatik urrundu nahian, ziega barneko egunez egunekoari ihes egin nahian: «Pozarren esnatzen naiz larunbat goizetan / badakidalako eguerdiko poltsa dela

/ hamabostero eskaintzen didazun / ihes egiteko aukera txikia». Ametsa nostalgiaz jantzita agertzen da, ametsak tonu sakona du, tristea kasik: «Gure ametsak zirkulu txikiak dira, / haurrek egiten dituzten / xaboi puxpuluaren modukoak, / hauskor eta arinak...».

Bi atal nagusi ditu liburuak, «Oroitzak» eta «Oskola». Horien aurretik «Aurkibidea» izenekoan ale bat aurkituko dugu eta, ondotik, beste bat, «Gerezi gorriak» izenekoan. Hari oso fin batek bereizten ditu bi atalak, zedarrituko ez balitu, oharkabean igaroko ginatete lehenengotik bigarrenean.

Bada, halere, gustatu zaidan joko bat, lehenengo atalean hasi eta bigarrenean amaitzen

dena. «Udazken berbak» izeneko alean autoreak honakoa diosku: «Badakit nahiago dituzula letra borobil handiak, / haietan arinago antzematen dira-eta sekretuak; / baina letra txikira kondentatu gaituzte, isil-gordean».

Erantzuna «Oskolean» topatuko dugu, bigarren atalean, letrak izenekoan: «Badiostazu / nahiago ditudala / letra borobil eta / tamaina handikoak. / Ez ordea / haietan sekretuak / arinago antzematen direlako, / jadanik sekretuak ere / ebatsi dizkigutelako baizik».

Bi atal horietan eta, finean, liburu osoan, maitasuna da neonezko argiz agertzen den gaia.

Barnetik kanpora idazten ari da psikologikoki, barneak aska-

tuz. Halaber, barnetik kanpora idazten ari da fisikoki, kanpoan duenari idazten dio, eman ezin diren musuak aipatzen ditu, kristalean lehertzen diren musuak; debekatutako maitasuna da, marinelen maitasuna izendatzen du Etxaburuk berak: «marinelen maitasuna da gurea: / musu eman eta urrun joaten dena, / azken olatuaren antzekoa...». Alez ale aurrera doan gaia da maitasun debekatu hori, maitasun ezindua, bere barnean lehertzen dena. Azken aleak, baina, amaiera polita gorde dio maitasun-istorio honi: «Gaurtik aurrera / gerezi gorriak / jango ditugu elkarrekin».

Ohituta gaude, zorritzarrez, kartzela usaina duen literatura suminduaz gurean, amorrua eta aldarrikapena gordetzen dituen. Hemen, ordea, ez dugu tonu bortitz hori aurkituko, ahots apalagoz hitz egiten digu Etxaburuk, hizketan ari da, eta aipatzen ditu kartzela zapaldu duenari barnean eraikitzen zaizkion sentimenduak.

Ale laburrak dira gehienak, eta horrek erritmo azkarra izaten du lagun, baina komeni da erritmoa apaldu eta edukiak eskatzen duen patxada izatea, preso egon denak barnean zer gordetzen duen ulertu nahi badugu.

